XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. 2010ean eta 2011n Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapeko Batasunaren barruko eragiketen laburpen aitorpena aurkezteko atalasea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onartu duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuko 81. artikuluko 2. idatz zatiko 2. zenbakian aipatzen den atalasea 100.000 eurokoa izango da 2010 eta 2011ko laburpen aitorpenetarako.

Bigarrena. Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duten enpresaburu eta profesionalek eskabideak aurkeztea 2009an jasandako Balioa Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak itzultzeko.

Zergaren aplikazio lurraldean ezarrita ez egon arren Batasunean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan establezimendua duten enpresaburuek eta profesionalek 2009ko abenduaren 31ra arte aurkezten dituzten itzulketa eskabideak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onartu duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuko 31. artikuluan (indarrean dagoen testua) ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Europar Batasuneko Zuzenbidea txertatzea.

Foru dekretu honen bidez Arabako zerga arautegira txertatu dira ondoko xedapen hauek: Kontseiluaren 2008/8/CE Zuzentaraua, 2008ko otsailaren 12koa, 2006/112/CE Zuzentaraua aldatu duena zerbitzuak egin diren lekuari dagokionez; Kontseiluaren 2008/9/CE Zuzentaraua, 2008ko otsailaren 12koa, xedapen batzuk ezarri dituena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren itzulketaz, hain zuzen ere 2006/112/CE Zuzentarauaren arabera itzulketa gertatzen den estatuan ez EBeko beste batean egoiliartutako subjektu pasiboei egin beharreko itzulketaz; Kontseiluaren 2008/117/CE Zuzentaraua, 2008ko abenduaren 16koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema komunari buruzko 2006/112/CE Zuzentaraua aldatu duena Batasunaren barruko eragiketetako zerga iruzurraren kontra egiteko.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean. Hain zuzen ere, apirilaren 27ko 124/1993 Errege Dekretuak onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 79. artikuluko 4. zenbakian aipatutako Batasunaren barruko zerbitzu eskuraketei buruzko informazioa foru dekretu hau indarrean jarritakoan aurkezten diren laburpen aitorpenetan agertu behar da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 13a.– Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera. Umbral para la presentación de la declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido durante 2010 y 2011.

El umbral a que se refiere el número 2º del apartado 2 del artículo 81 del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, será de 100.000 euros para las declaraciones recapitulativas correspondientes a los años 2010 y 2011.

Segunda. Solicitudes de devolución presentadas por empresarios o profesionales no establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto sobre el Valor Añadido correspondientes a cuotas soportadas en 2009.

Las solicitudes de devolución de empresarios o profesionales no establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto sobre el Valor Añadido pero establecidos en la Comunidad, Islas Canarias, Ceuta o Melilla presentadas hasta el 31 de diciembre de 2009, se tramitarán de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 31 del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, según su redacción vigente en esa fecha.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Incorporación de Derecho de la Unión Europea.

Mediante este Decreto Foral se incorporan a la normativa tributaria alavesa la Directiva 2008/8/CE del Consejo, de 12 de febrero de 2008, por la que se modifica la Directiva 2006/112/CE en lo que respecta al lugar de la prestación de servicios, la Directiva 2008/9/CE del Consejo, de 12 de febrero de 2008, por la que se establecen disposiciones de aplicación relativas a la devolución del Impuesto sobre el Valor Añadido, prevista en la Directiva 2006/112/CE, a sujetos pasivos no establecidos en el Estado miembro de devolución, pero establecidos en otro Estado miembro y la Directiva 2008/117/CE del Consejo, de 16 de diciembre de 2008, por la que se modifica la Directiva 2006/112/CE, relativa al sistema común del Impuesto sobre el Valor Añadido, a fin de combatir el fraude fiscal vinculado a las operaciones intracomunitarias.

Segunda. Entrada en vigor.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA. En particular, la información de las adquisiciones intracomunitarias de servicios a que se refiere el número 4º del artículo 79 del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido deberá contenerse en las declaraciones recapitulativas que se presenten desde la entrada en vigor de este Decreto Foral.

Vitoria-Gasteiz, 13 de abril de 2010.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**2635**

**15/2010 FORU DEKRETUA, Diputatuen Kontseiluarena, apirilaren 13koa. Honen bidez Arabako Foru Ogasunaren aurrean, zergen arloan, zenbait izapide eta jarduera egiteko emandako borondatezko ordezkaritza arautzen da eta Borondatezko Ordezkarien Erregistroa sortzen da.**

Azken urteetan, eta zergadunei beren eskubideak erabiltzeko eta zerga betebeharrak betetzeko erraztasunak emate aldera, Arabako Foru Ogasunak hainbat jarduera gauzatu ditu, bitarteko berrien bidez beren harremanak sustatu eta hobetzeko.

Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 46. artikuluaren arabera, zergapekoek borondatezko ordezkarien bidez jardun dezakete Zerga Administrazioaren aurrean.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**2635**

**DECRETO FORAL 15/2010, del Consejo de Diputados de 13 de abril, que regula la representación voluntaria otorgada para la realización de determinados trámites y actuaciones en materia tributaria ante la Hacienda Foral de Álava y crea el Registro de Representantes Voluntarios.**

Durante los últimos años, y con el propósito de facilitar a los contribuyentes el ejercicio de sus derechos y el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, la Hacienda Foral de Álava está llevando a cabo diversas actuaciones que fomentan y favorecen sus relaciones a través de nuevos canales.

El artículo 46 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, prevé la posibilidad de que los obligados tributarios actúen ante la Administración tributaria por medio de representante voluntario.

Arabako Foru Ogasunak eskainitako zerbitzuak bitarteko berrien bidez hedatzea eta horren aurrean ordezkarien bidez jarduteko aukera batzearen ondorioz, beharrezkoa da Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrean borondatezko ordezkaritzari dagokionez jasotako aurreikuspen orokorrak garatzea.

Horrenbestez, Foru Dekretu hau egin da. Dekretuaren helburua ordezkari baten bidez Arabako Foru Ogasunarekin harremanetan dauden edo egon nahi duten pertsonen borondatezko ordezkaritzaren araubidea garatzea da.

Foru Dekretu honetan, Borondatezko Ordezkarien Erregistroa sortuko da. Horrela, zergapekoek beren ordezkariei emandako ahalmenak kudeatu eta inskribatu ahalko dira.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostenak aztertu dira.

Hori dela bide, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

I. KAPITULUA
XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru Dekretu honen xedea Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean jasotako ordezkaritzaren araubidearen zati bat garatzea da.

2. Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera, zuzenbidez onartutako edozein ordezkaritza ahalmen ordezkari bati emateko eskubidea dute zergapekoek.

Aurrekoa gorabehera, Foru Dekretu honetan honakoa arautzen da: zergapekoek, borondatezko ordezkaritzari dagokionez, Arabako Foru Ogasunaren aurrean dituzten modalitate zehatzak. Horretarako, lau ordezkaritza maila ezarri dira eta horiek zehaztuko dute borondatezko ordezkariek zer egin dezaketen beren ordezkatuen izenean.

Aurreko paragrafoan aipatutako ordezkaritza ordezkariak gauzatuko du, edozein bitartekoaren bidez, batetik Zerga Administrazioak erabilitako sistema eragileetan bitarteko hauentzat ezarritako baldintzetan eta bestetik dagokion araudian ezarritako baldintzetan.

3. Foru Dekretu honek Borondatezko Ordezkarien Erregistroa sortzen du. Horren bidez, ordezkatzen dituztenen izenean Arabako Foru Ogasunaren aurrean jarduteko borondatez izendatuko diren eta xedapen orokor honetako 3. artikuluan aipatutako ordezkaritza mailak dituzten ordezkari guztiak kontrolatuko dira.

II. KAPITULUA
BORONDATEZKO ORDEZKARITZA

2. artikulua. Borondatezko ordezkaritza.

1. Foru Dekretu honetan xedatutakoaren barruan, zergapekoek ordezkari baten bidez jardun ahalko dute Arabako Foru Ogasunaren aurrean. Ordezkariak jarraian azalduko diren administrazio jarduerak gauzatuko ditu, ordezkaritza aldatu, baliogabetu edo ukatzen ez bada.

2. Aurreko artikuluaren 2. atalean xedatutakoaren arabera, hurrengo artikuluan aipatutako ordezkaritza mailari dagozkion eta ordezkatuak eman dizkien jarduerak soilik egin ahalko dituzte ordezkariek, Arabako Foru Ogasunaren aurrean.

3. artikulua. Borondatezko ordezkaritza mailak.

1. Jarraian adieraziko diren lau mailak ezarri dira, borondatezko ordezkariek Arabako Foru Ogasunaren aurrean gauza ditzaketen jarduerei dagokienez:

La conjunción de, por una parte, la ampliación de los servicios ofrecidos por la Hacienda Foral de Álava a través de nuevos canales y, por otra, la posibilidad de actuar ante la misma a través de representante, hace necesario desarrollar las previsiones generales contenidas en la Norma Foral General Tributaria de Álava sobre representación voluntaria.

Es por ello que se ha elaborado el presente Decreto Foral cuyo objeto es desarrollar el régimen de representación voluntaria de todas aquellas personas que se relacionen o deseen relacionarse con la Hacienda Foral de Álava a través de un representante.

En este Decreto Foral se procede a la creación de un Registro de Representantes Voluntarios que permita inscribir y gestionar las facultades otorgadas por los obligados tributarios a favor de sus representantes.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

CAPÍTULO I
OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.

1. El presente Decreto Foral tiene por objeto desarrollar parcialmente el régimen de representación contenido en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

2. De conformidad con lo establecido en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava los obligados tributarios tienen el derecho de otorgar cualesquiera de los poderes de representación admitidos en derecho a favor de un representante.

Sin perjuicio de lo anterior, el presente Decreto Foral regula modalidades concretas y determinadas de representación voluntaria de los obligados tributarios ante la Hacienda Foral de Álava. A tal fin se establecen cuatro niveles de representación que serán los que determinen las actuaciones que pueden llegar a realizar los representantes voluntarios en nombre de sus representados.

La representación a que se refiere el párrafo anterior se podrá hacer efectiva por el representante a través de cualquier canal, en los términos y condiciones que se establezcan, por una parte, para cada uno de estos canales en los sistemas operativos utilizados por la Administración tributaria y, por otra parte, en la correspondiente normativa.

3. El presente Decreto Foral crea el Registro de Representantes Voluntarios, por medio del cual se llevará un control de todos aquellos representantes que hayan sido nombrados de forma voluntaria para actuar ante la Hacienda Foral de Álava en nombre de las personas a quienes representan y que dispongan de los niveles de representación a que se refiere el artículo 3 de esta disposición general.

CAPÍTULO II
REPRESENTACIÓN VOLUNTARIA

Artículo 2. Representación voluntaria.

1. En el marco de lo dispuesto en el presente Decreto Foral, los obligados tributarios podrán actuar ante la Hacienda Foral de Álava por medio de representante, con el que se entenderán las sucesivas actuaciones administrativas, salvo que exista modificación, revocación o renuncia de la representación.

2. De acuerdo con lo dispuesto en el apartado 2 del artículo anterior, los representantes única y exclusivamente podrán ejercer ante la Hacienda Foral de Álava aquéllas actuaciones que se correspondan con el nivel de representación a que se refiere el artículo siguiente que les haya conferido por el representado.

Artículo 3. Niveles de representación voluntaria.

1. Se establecen los siguientes cuatro niveles de representación en atención a las actuaciones que pueden ejercer los representantes voluntarios ante la Hacienda Foral de Álava:

A.- “Lehenengo maila”.

Ordezkaritza maila honek ordezkariak gaitzen ditu jarraian zerrendatuko diren jarduera guztiak egiteko:

a.- Era guztietako aitorpenak eta autolikidazioak (formalak barne) sinatu eta aurkeztea, zentsu aitorpenak salbu.

b.- Aurreko letran aipatutako autolikidazioak ordaintzeko atzerapena edo zatikatzea eskatu eta sinatzea, bai eta Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean araututako zerga zorra konpentsatzeko edo deuseztatzeko beste edozein modu eskatu eta sinatzea ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, biltzeko borondatezko epearen barruan egon beharko da zerga zorra.

c.- Aurreko a) letran aipatutako autolikidazioetatik datorren zerga zorraren ordainketa helbideratzeko eskatzea.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, biltzeko borondatezko epearen barruan egon beharko da zerga zorra.

d.- Edozein modutako autolikidazio, likidazio edo zehapenetik eratorritako zerga zorrak ordaintzea, Arabako Foru Ogasunak gaitutako edozein sistemaren bidez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, biltzeko borondatezko epearen barruan egon beharko da zerga zorra edo zehapena.

e.- Aurreko letretan aipatutako aitorpen, autolikidazio, eskabide edo ordainketen izapidetze egoera kontsultatzea.

Kontsulta hau aipatutako aitorpen, autolikidazio, eskabide edo ordainketekin zuzenean eta berehala lotutako administrazio izapideei buruzkoa izango da soilik.

f.- Aurreko letretan aipatutako aitorpen, autolikidazio eta eskabideen baliozko kopia inprimatzea, betiere horiek telematikaren bidez aurkeztu badira.

Zergapekoek gehienez bi ordezkariri esleitu ahalko diete “lehenengo maila” hau.

B.- “Bigarren maila”.

Ordezkaritza maila honen barruan hiru azpimaila daude:

B.1) “Bigarren maila a)”: Ordezkaritza maila honek ordezkaria gaitzen du kontsultatzeko, eta, hala badagokio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez ordezkatuen zerga datuak erabiltzeko, zerga betebeharrak betetze aldera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetze aldera, zerga betebehartzat joko da Arabako Foru Ogasunak zergapekoei buruz duen informazio guztia, zuzenean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa egiteko balio duena.

Azpimaila honetan, ordezkaria ahaldunduta egon beharko da artikulu honetako A) letran aipatutako borondatezko ordezkaritzaren “lehenengo mailako” jarduerak egiteko. Ondorioz, azpimaila hau esleitzeko, ordezkaritzako “lehenengo maila” esleitu beharko da.

Zergapekoek ordezkari bakarrari esleitu ahalko diote azpimaila hau.

B.2) “Bigarren maila b)”: Ordezkaritza maila honek ordezkaria gaitzen du edozein zerga ziurtagiri eskatzeko, bai eta Arabako Foru Ogasunak emandako ziurtagiriak jasotzeko ere, baldin eta Ogasunak eskabidearen unean automatikoki eman eta aurkeztu ahal badu ziurtagiria.

Ordezkaritzako azpimaila honetan, ordezkariak ez du artikulu honetako aurreko atalean azaldutako “lehenengo maila” izan beharko.

Zergapekoek gehienez bi ordezkariri esleitu ahalko diete azpimaila hau.

Ordezkaritzako azpimaila hau independentea da artikulu honetan aipatutako gainerako ordezkaritza mailekiko.

B.3) “Bigarren maila c)”: Ordezkaritza maila honek ordezkariak gaitzen ditu jarraian zerrendatuko diren jarduera guztiak egiteko:

a.- Zentsu aitorpenak sinatu eta aurkeztea, horien izapidetze egoera kontsultatzea, bai eta aitorpenen baliozko kopia sinatzea ere, betiere horiek telematikaren bidez aurkeztu badira.

A.- “Nivel Uno”.

Este nivel de representación habilita a los representantes para realizar todas las actuaciones que se relacionan a continuación:

a.- Suscribir y presentar todo tipo de declaraciones y autoliquidaciones, incluidas las formales, con excepción de las declaraciones censales.

b.- Solicitar y suscribir el aplazamiento o fraccionamiento de pago de las autoliquidaciones a que se refiere la letra anterior, así como la compensación o cualquier otra forma de extinción de la deuda tributaria regulada en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

Lo dispuesto en el párrafo anterior exigirá que la deuda tributaria se encuentre en período voluntario de recaudación.

c.- Solicitar la domiciliación del pago de la deuda tributaria procedente de las autoliquidaciones a que se refiere la letra a) anterior.

Lo dispuesto en el párrafo anterior exigirá que la deuda tributaria se encuentre en período voluntario de recaudación.

d.- Efectuar el pago, por cualquier sistema habilitado por la Hacienda Foral de Álava, de la deuda tributaria procedente de cualquier tipo de autoliquidación, liquidación, así como de las sanciones.

Lo dispuesto en el párrafo anterior exigirá que la deuda tributaria o la sanción se encuentre en período voluntario de recaudación.

e.- Consultar el estado de tramitación de las declaraciones, autoliquidaciones, solicitudes o pago a que se refieren las letras anteriores.

Esta consulta se referirá, única y exclusivamente, a los trámites administrativos directa e inmediatamente relacionados con las referidas declaraciones, autoliquidaciones, solicitudes o pago.

f.- Imprimir copia válida de las declaraciones, autoliquidaciones y solicitudes a que se refieren las letras anteriores, siempre que se hayan presentado por vía telemática.

Los obligados tributarios podrán asignar este “Nivel Uno” de representación a, como máximo, dos representantes.

B.- “Nivel Dos”.

Este nivel de representación se divide, a su vez, en tres subniveles:

B.1) “Nivel Dos a)”: Este nivel de representación habilita al representante para consultar, y en su caso utilizar a efectos del cumplimiento de las obligaciones tributarias, los datos fiscales de sus representados correspondientes al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

A efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, tienen la consideración de datos fiscales toda aquella información que, de un obligado tributario, dispone la Hacienda Foral de Álava y que directamente sirve para confeccionar la autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Este subnivel de representación requerirá que el representante se halla facultado para ejercer las actuaciones del “Nivel Uno” de representación voluntaria a que se refiere la letra A) anterior del presente artículo. En consecuencia, la atribución de este subnivel de representación requerirá la atribución del “Nivel Uno” de representación.

Los obligados tributarios podrán asignar este subnivel de representación a un único representante.

B.2) “Nivel Dos b)”: Este nivel de representación habilita al representante para solicitar cualquier tipo de certificado tributario, así como para recibir los certificados emitidos por la Hacienda Foral de Álava en aquellos supuestos en que ésta pueda emitir y entregar el certificado de forma automática en el momento de la solicitud.

Para este subnivel de representación no se requerirá que este representante disponga del “Nivel Uno” a que se refiere la anterior del presente artículo.

Los obligados tributarios podrán asignar este subnivel de representación a, como máximo, dos representantes.

Este subnivel de representación es independiente de los demás niveles de representación a que se refiere el presente artículo.

B.3) “ Nivel Dos c)”: Este nivel de representación habilita a los representantes para todas las actuaciones que se relacionan a continuación:

a.- Suscribir y presentar las declaraciones censales, consultar su estado de tramitación, así como imprimir copia válida de las mismas, siempre que se hayan presentado por vía telemática.

b.- Arabako Foru Ogasunak zentsu prozeduren barruan egindako edozein eskabideren erantzuna sinatu eta aurkeztea.

Era berean, ordezkariak edozein eskari edo eskaera egin dezake, agiriak aurkez ditzake, probak eska ditzake, eta, oro har, aurreko paragrafoan aipatutako zentsu prozeduren barruan edozein jarduera egin dezake.

c.- Arabako Lurralde Historikoko zergadunen erroldan egon eta Arabako Foru Ogasunak kontsultatzeko jarri dituen datu guztiak kontsultatzea.

Ordezkariak kontsultatu ahalko dituen datuak zergapekoak ordezkaririk izan ezean eskuratu ahalko lituzkeenak izango dira.

Ordezkaritzako azpimaila honetan, ordezkariek artikulu honetako A) letran aipatutako "lehenengo maila" izan beharko dute. Ondorioz, zergapekoek gehienez bi ordezkari izango dituzte ordezkaritzako azpimaila honen barruan. Ordezkaritzako azpimaila hau esleitzeko, aipatutako "lehenengo maila" eman beharko da.

C) "Hirugarren maila".

Ordezkaritza maila honek ordezkariak gaitzen ditu jarraian zerrendatuko diren jarduera guztiak egiteko:

a.- Berraztertzeko errekurtsoa, erreklamazio ekonomiko administratiboa, eta Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak berrikusteko aipatzen dituen prozedura bereziekin lotutako idazkiak jartzea, aurkeztea eta sinatzea, bai eta aipatutako Foru Arauko 82. artikuluan aipatutako aurretiazko administrazio loturaren edozein prozedura hasteko eskatzea ere.

Era berean, ordezkariak edozein eskari edo eskaera egin dezake, erantzunak eman ditzake, agiriak aurkez ditzake, probak eska ditzake, eta, oro har, aurreko paragrafoan aipatutako zentsu prozeduren edo izapidetzen ari diren prozeduren barruan dagoen edozein jarduera egin dezake.

b.- Kudeaketa prozedura baten hasten diren zergak kudeatzeko, biltzeko eta zehatzeko prozeduren barruan, Arabako Foru Ogasunak egindako edozein eskaera motarekin lotutako erantzuna sinatu eta aurkeztea, "bigarren maila c)" atalean aipatutakoak salbu.

c.- Zerga zorrak eta zehapenak ordaintzeko atzerapena edo zatikatzea eskatu eta sinatzea, bai eta Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean araututakoak konpentsatzeko edo deuseztatzeko beste edozein modu eskatu eta sinatzea ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, biltzeko borondatezko epearen barruan egon beharko dira zerga zorra eta zehapena.

d.- Aurreko letretan ezarritakoari dagokionez, administrazio espedienteak eta horien izapidetze egoera kontsultatu ahalko dira.

Kontsulta hau "hirugarren mailan" zerrendatutako prozedurekin zuzenean eta berehala lotutako administrazio izapideei buruzkoa izango da soilik.

Ordezkaritza maila honetan, ordezkariek artikulu honetako A) letran aipatutako "lehenengo maila" izan beharko dute. Ondorioz, zergapekoek gehienez bi ordezkari izango dituzte ordezkaritza maila honen barruan. Ordezkaritza maila hau esleitzeko, aipatutako "lehenengo maila" eman beharko da.

D) "Laugarren maila".

Ordezkaritza maila honek ordezkariak gaitzen ditu Arabako Foru Ogasunetik datozen jakinarazpenak jasotzeko, eta, horretarako, honako hiru azpimailak ezartzen ditu:

D.1) "Laugarren maila a)": Ordezkariak abiarazitako izapide eta prozedurekin zuzenean lotutako jakinarazpenak jasotzeko gaitzen da ordezkaria.

Ordezkaritza maila honetan, ordezkariek artikulu honetako C) letran aipatutako "hirugarren maila" izan beharko dute. Ondorioz, zergapekoek gehienez bi ordezkari izango dituzte ordezkaritza maila honen barruan. Ordezkaritza maila hau esleitzeko, artikulu honetako A) letran aipatutako "lehenengo maila" eman beharko da, bai eta aipatutako "hirugarren maila" ere.

b.- Suscribir y presentar la contestación a cualquier tipo de requerimiento formulado por la Hacienda Foral de Álava en el seno de los procedimientos censales.

Igualmente, el representante podrá realizar cualquier petición, solicitud, aportación de documentación, petición de pruebas y, en general, cualquier actuación en el seno de los procedimientos censales a que se refiere el párrafo anterior.

c.- Consultar la totalidad de los datos que, contenidos en el Censo de Contribuyentes del Territorio Histórico de Álava, hayan sido puestos a nivel de consulta por la Hacienda Foral de Álava.

Los datos que podrán ser consultados por el representante serán los mismos a los que, de no mediar representación, tendría acceso el obligado tributario.

Este subnivel de representación requerirá que los representantes tengan el "Nivel Uno" a que se refiere la letra A) anterior del presente artículo, lo que determina que como máximo los obligados tributarios pueden tener a dos representantes dentro de este subnivel de representación. La asignación de este subnivel de representación requerirá el otorgamiento del citado "Nivel Uno".

C) "Nivel Tres".

Este nivel de representación habilita a los representantes para todas las actuaciones que se relacionan a continuación:

a.- Interponer y presentar, así como suscribir recurso de reposición, reclamación económico-administrativa, así como los escritos relacionados con los procedimientos especiales de revisión a que se refiere la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava y solicitar el inicio de cualquier procedimiento de vinculación administrativa previa a que se refiere el artículo 82 de la citada Norma Foral.

Igualmente, el representante podrá realizar cualquier otra petición, solicitud, contestación, aportación de documentación, petición de pruebas y, en general, cualquier actuación en el seno de los procedimientos iniciados o que se están tramitando a que se refiere el párrafo anterior.

b.- Suscribir y presentar la contestación relacionada con cualquier tipo de requerimiento formulado por la Hacienda Foral de Álava en el seno de los procedimientos de gestión tributaria, de recaudación y sancionadores que se incoen en un procedimiento de gestión, excluidos aquéllos a los que se hace referencia en el "Nivel Dos c)" anterior.

c.- Solicitar y suscribir el aplazamiento o fraccionamiento de pago de las deudas tributarias y sanciones, así como la compensación o cualquier otra forma de extinción de las reguladas en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

Lo dispuesto en el párrafo anterior exigirá que la deuda tributaria y la sanción se encuentre en período voluntario de recaudación.

d.- Respecto a lo señalado en las letras anteriores, se podrán consultar los expedientes administrativos y su estado de tramitación.

Esta consulta se referirá, única y exclusivamente, a los trámites administrativos directa e inmediatamente relacionados con los procedimientos relacionados en este "Nivel Tres".

Este nivel de representación requerirá que los representantes tengan el "Nivel Uno" a que se refiere la letra A) anterior del presente artículo, lo que determina que como máximo los obligados tributarios pueden tener a dos representantes dentro de este nivel de representación. La asignación de este nivel de representación requerirá el otorgamiento del citado "Nivel Uno".

D) "Nivel Cuatro".

Este nivel de representación habilita a los representantes para recibir notificaciones procedentes de la Hacienda Foral de Álava, estableciéndose a tal efecto los tres siguientes subniveles:

D.1) "Nivel Cuatro a)": Se habilita al representante para recibir notificaciones relacionadas directamente con trámites y procedimientos iniciados por dicho representante.

Este nivel de representación requerirá que los representantes tengan el "Nivel Tres" a que se refiere la letra C) anterior del presente artículo, lo que determina que como máximo los obligados tributarios pueden tener a dos representantes dentro de este nivel de representación. La asignación de este nivel de representación requerirá el otorgamiento del "Nivel Uno" a que se refiere la letra A) anterior del presente artículo, así como del citado "Nivel Tres".

D.2) “Laugarren maila b)”: Zergapekoak abiarazitako izapide eta prozedurekin zuzenean lotutako jakinarazpenak jasotzeko gaitzen da ordezkaria.

Zergapekoek ordezkari bakarrari esleitu ahalko diote ordezkaritza maila hau eta, gainera, ordezkariak D.1) letran aipatutako laugarren maila a) izan beharko du. Ordezkaritza maila hau esleitzeko, artikulu honetako A) letran aipatutako “lehenengo maila”, artikulu honetako C) letran aipatutako “hirugarren maila” eta aipatutako laugarren maila a) eman beharko dira.

D.3) “Laugarren maila c)”: Arabako Foru Ogasunak ofizioz abiarazitako izapide eta prozedurekin lotuta dauden jakinarazpenak jasotzeko gaitzen da ordezkaria.

Zergapekoek ordezkari bakarrari esleitu ahalko diote ordezkaritza maila hau eta, gainera, ordezkariak aurreko D.2) letran aipatutako laugarren maila b) izan beharko du. Ordezkaritza maila hau esleitzeko, artikulu honetako A) letran aipatutako “lehenengo maila”, artikulu honetako C) letran aipatutako “hirugarren maila”, D.1) letran aipatutako laugarren maila a) eta aipatutako laugarren maila b) eman beharko dira.

2.- Aurreko 1. atalean adierazitako ordezkaritza mailak aplikatzean, zergapekoek lau ordezkari ezberdin izan ahalko dituzte gehienez.

4. artikulua. Borondatezko ordezkaritza egiaztatzea.

1. Arabako Foru Ogasunaren aurrean zergapekoaren izen eta ordezkaritzan jarduten duten borondatezko ordezkariek beren ordezkaritza egiaztatu ahalko dute, honako bideetaz baliatuz:

a.- Foru Dekretu honen 5. artikuluan aipatutako Borondatezko Ordezkarien Erregistroan izena emanda egotea.

b.- Era fidagarrian jasota geratuko den eta zuzenbidean baliozkoa den edozein modu erabiltzea.

c.- Zergapekoa eta bere ordezkaria Arabako Foru Ogasunera joatea, agertu izana eta emandako ordezkaritza aitortze aldera.

